

IV. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN EDUKIA

1 Partaidetza faseak

Bi egite fase hauek planteatzen ditugu:

- * 1. fasea, hirigintza dokumentua hasi bidez onartu aurretik sustatu beharrekoa.
- * 2. fasea, hirigintzako dokumentua hasi bidez onetsi ondoren sustatzekoa.

Fase horietako bakoitzaren edukia eta helburuak ondoko atal hauetan azaldutakoak dira:

2. Parte hartzeko 1. fasearen edukia eta helburuak

Adierazitakoarekin bat, Plan Orokorreko aipatu aldaketa hasiera batean onetsi aurretik egitea proposatzen dugu. Hona hemen haren edukia eta sustatu beharreko jarduketak:

A. 1. jarduketa: saio publiko bat edo gehiago egitea, herritarrei irekiak, Plan Orokorreko aldaketaren helburuak eta proposamenak aurkeztu eta azaltzeko:

- * Hasiera batean, saio publiko eta ireki bat egitea proposatzen dugu, nahiz eta aurrerago egoki iritzitako beste batzuekin osatzea erabaki ahal izan.
- * Bilkura Donostiako Udalak zehaztutako tokian eta egunean izango da.
- * Udal teknikariek eta talde idazleak azalduko dituzte hirigintza dokumentuko proposamen eta helburuak
- * Saioan azalduko dituztenak: Hirigintza dokumentuaren helburuak eta proposamenak; hura eskuratzeko eta kontsultatzeko moduak; hirigintza dokumentua izapidetzeko prozesua; interesgarritzat jotako beste edozein gai.
- * Dokumentuaren helburu eta proposamenak aurkeztu eta azaltzea galdera edo eztabaida txanda batez osatuko da.
- * Bilkuran, D atalean aipatzen den gauzatze laburpenaren zirriborroaren kopiak jarriko dituzte bertaratuen eskura.
- * Akta bat idatziko dute, hirigintzako dokumentuaren helburuak eta proposamenak aurkezteko eta azaltzeko saioaren edo saioen edukiari buruzkoa, eta udal teknikariek prestatuko dute.

Bilkura horietan planteatzen dituzten iritziak, oharrak eta iradokizunak jasoko dituzte aktan, balorazioa egin ahal izateko bezain zehaztuta.

B. 2. jarduketa: jendaurreko bilkuran planteatutako iritzi eta iradokizunen gaineko balorazio txostena prestatzea:



* Azalpen saioa egin ondoren, hartan planteatzen dituzten iritziak, oharrak eta iradokizunak balioztatzeko txostena egingo dute.

* Txosten hori udal teknikariek prestatuko dute, eta iritzi eta iradokizunak onartzeko edo gaitzesteko arrazoiak jasoko dituzte hartan.

C. 3. jarduketa: Plan Orokorreko aldaketaren gauzatze laburpena.

* Herritarren eta interesa duten erakunde eta elkarten eskura jarriko diete behar duten dokumentazioa, batetik, hirigintzako dokumentuaren helburuak eta proposamenak ezagutu, eta, bestetik, haien iritziak eta iradokizunak adierazi ahal izateko.

* Dokumentazio hori bat dator hirigintzako dokumentuaren gauzatze laburpenarekin, dagozkion planoekin osatuta.

3. Parte hartzeko 2. fasearen edukia eta helburuak

Hasierako onespeneraren ondoren, Plan Orokorraren Aldaketa jendaurrean jarri eta ohiko bideetatik iragarriko dute. Horretaz gainera:

* Jendaurrean egoteko tramitearen osagarri, beste saio publiko bat izango da, herritarrei irekia, proposamenak aurkeztu eta azaltzeko, Udalak egoki irizten badio.

* Aurkezten dituzten alegazioen balorazioari buruzko txosten bat egingo dute, eta, hartan, haiek onetsi edo ezesteko arrazoiak adieraziko dituzte.

Txosten horretan, halaber, hirigintzako dokumentuaren aurkezteko eta azaltzeko bilkuretan planteaturiko iritziak eta proposamenak aztertuko dituzte.